

GIL 121 Valderejoko itxiera periantiklinala



Valderejoko antiklinalaren panoramika, Lalastratik ikusia.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**


Lat.: 42° 52' 33,30" N

Long.: 3° 13' 47,29" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 481.226,38 m

Y: 4.747.070,10 m



Nola iritsi

San Millán de San Zadornil herritik, Gasteiz-Bóveda errepidean (A-2622), bidegurutze batean, Valderejo seinalea duen bide bat abiatzen da hegoalderantz. 9 km-ra, Lalastra dago; han dago parkearen etxea.



Ipar-alpean, Subillako kareharriak bertikalean daude.

GILaren deskribapen laburra

Valderejoko itxiera periantiklinala eskala handiko egituretan EAEn hobekien kontserbatuta dagoenetako bat da, eta didaktikarako adibide bikaina da. Lalastra ingurutik ikuspegi oso bat dago. Erraz ikusten da haran bat dela, alde banatan erliebe jarraitu eta ia erabat malkartsuak dituela; erliebeok labarrak dira, gehienbat. Begiak erlojuaren kontrako noranzkoan mugituz ibilbide bat osatuz gero, Arrayuelasko erliebe biluziak ikusiko ditugu iparraldean. Erraz antzematen zaie, nabarmen ikusten baitira telebista-antena eta haiek osatzen dituzten arroka karedunen kolore argiak. NW-rantz, Leróngo zirkua ebakitzen dituzten labarrak ageri dira; zonako erlieberik garaiena dira, eta Burgosekiko muga eratzen dute. Jarraian, goi-lautada ia horizontal bat nabarmentzen da Lahozen hasten den gailurreriaren gainetik. Ekialdean, labar ia lauak jarraitzen du; hartan, San Lorentzo ermita nabarmentzen da. Hegoaldera jarraituta, Vallegrulleko erliebeak agertzen dira, gero eta baxuagoak Purón ibaiaren haitzartera hurbildu ahala. Purón ibaia ez da ikusten, Cuovoque mendiak ezkutatzen baitu. Arretaz begiratuta, ikusten da erdialdeko sekto-rean lauza lau bat marrazten duten arrokek kontrako noranzkoetan hondoratzen direla bi aldeetan: hegoalderantz Vallegrullen, eta iparralderantz Arrayuelasen. Are gehiago, Arrayuelasen hegoalderantz jarraituko bagenu, Carrias mendira iritsiko ginateke: arroka-gorputzaren antolaera bertikalak eratutako horma bat da. Haranaren hondoko arrokek bigunak dira, eta erraz higatzen dira; beraz, higatuta daude ia denak. Multzoaren formak teilatu hondoratu bat gogorazten du; hau da, itxiera periantiklinal bat da. Ipar-alpeko arrokek okerdura bertikalak dituzte; erdialdekoek, horizontalak; eta hego-alpekoek 20-30°-ko inklinazioa dute SW-rantz. Kareharri gogor eta hauskaitzek labarrak sortzen dituzte; arroka bigunak, berriz, erraz arrastatzen ditu urak, eta sakonuneak sortzen dira.

Punto óptimo de observación

Desde Lalastra.



Antiklinalaren barnealdean, kareharriak horizontalean ageri dira.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 75, GIL 111.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 46, GIL 120, GIL 122.

Erlazionatutako GILak

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala			●	
	Estratigrafikoa		●		
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:					



Valderejoko parkearen eskema; argi eta garbi ikusten da nola kontrolatzen duen egitura honek parkearen erliebea.



Tolesaren hiru dimentsioko maketa, Lalastrako parketxean.



Antiklinalaren hego-alpeko kareharriak; 30° inguruko okerdura dute SW-rantz. Argazkiaren iturria: 'CC BY-3.0-ES 2012/EJ-GV/Irekia-Eusko Jaurlaritzza/Mikel Arrazola'.

Bibliografia espezifiko

- EGUILUZ, L.; LLANOS, H. eta RAMIREZ DEL POZO, J. (1986).- *Excursiones geológicas en la Provincia de Alava. IV Simposio sobre enseñanza de la geología*. 4, 521-536.
- PARQUE NATURAL DE VALDEREJO. *Guía Excursión Geología 2010* (SGE).
- MAGNA 110. zk.
- EVE 110-IV zk.